

## **“UDAL GAZTEDI BIZKAIA”REN BILERA ETA BALORAZIOA**

**Astelehena, azaroak 26, Udal Gaztediren Batzordea bildu zen xede bikoitzarekin: orain arte egindako jarduerak baloratzeko eta etorkizuneko jarduerak aztertu eta Batzordeari horien berri emateko.**

*Bilbon, 2012ko azaroaren 26an.*- Udal Gaztediren xedea da lurralde mailako oreka eta erakundeen arteko koordinazioa sustatzea eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietako gazteen beharrei erantzuteko jarduera egokiak ezarriko direla bermatzea. Bizkaiko Foru Aldundia, Eudel eta eskualde bakoitzeko ordezkari bat daude bertan. Ordezkari horiek Eskualdeko Batzordeetan aukeratzen dira eta Bizkaiko gazteen artean garatu beharreko jardueretan parte hartze integrala eta partekatua lortzeko neurriak planifikatzea eta garatzea da bere xedea. Gazteei zuzendutako ekintzak sustatzeko irizpideak bateratzea eta hobetzea eta Udaletatik jasotako iritziak eta iradokizunak jasotzea eta kontrastatzea da “Udal Gaztediren” xedea da. GAZTEDI BIZKAIA proiektuaren barruan dago Udal Gaztedi eta proiektu horren lurralde dimentsioa garatzeko tresna da.

### **batzordearen xedeak**

Batzordearen xede nagusia gazteen erabateko integrazioa lortzea da. Horretarako, funtsezko proiektuak garatuko dira burujabetza-autonomia handiagoa lor dadin, zentzu demokratikoa hobetzeko parte hartze prozesuak susta daitezen, eta denok harro sentiarazteko gizartea eraiki ahal izateko balio batzuk bultzatu daitezten.

Berriazko helburu batzuk ere ezarri dira:

- Gazteen arloan politika estrategikoak definitu.
- Tokiko erakunde eta administrazioen gaztedi arloko politikak optimizatu eta arrazionalizatu.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko gazteen egoeraren osoko azterketa egin.
- Gaztedi proiektuan jasotako ardatz estrategikoei lotutako politiken azterketa egin.
- Erakunde arteko jarduera lerro bat garatu, gazteen parte hartzea sartzeko, horren buru izateko eta dinamizatzeko gai izango dena.
- Berbideratze estrategikoko beharrak definitu.
- Gaztedi Bizkaia proiektua lurralde osoan zabaldu.

## **ondorioak eta balantzea**

- Lurralde mailako dimentsioari dagokionez, azpimarratu beharra dago Udal Gaztediko sorrera dekretuan aurreikusitako eskualde mailako batzorde guztiak eratu direla. Zehatz esateko, honakoak eratu dira, handitik txikira: Bilbo, Lurraldeko gazte gehien duena; Ezkerraldea, Uribe Kosta, Nerbioi Ibaizabal, Durangaldea, Busturialdea, Txorierri, Enkarterriak, Lea Artibai, Mungialdea eta Arratia.
- Bizkaiko udalerrien %91,07 Udal Gaztedi Bizkaian dago, hain zuzen ere, 112tik 102.
- Azkeneko urte honetan 21 bilera politiko eta 37 tekniko egin dira. Bilera horietan gaztedi arloko 100 teknikari baino gehiago bildu dira, denak ere, udal eta foru arloan lanean ari direnak.
- Udal Gaztedik aurten udaletako 795 ekintza lagundu ditu diruz eta 161.902 gazte izan dira onuradunak; hau da, Bizkaiko Lurralde Historikoko gazteen % 96,46.

## **GAZTEDI BIZKAIA proiektuari buruzko intereseko beste zenbait informazioa, hor sartzen baita UDAL GAZTEDI.**

### **Foru dimentsioari dagokionez:**

- Bizkaiko Foru Aldundiak 2012an gaztedi arloko politketan 107.570.497€ inbertitu ditu Foru Erakundeko zazpi sailetan garatutako 97 programatan. Zentzu honetan, zeharkakotasunaren gaia azpimarratu beharra dago; Bizkaiko Foru Aldundiko gaztedi arloko politiken xedeetako bat izateaz gain, arlo horretako politiken oinarrizko ezaugarrietako bat ere badelako. Gaztedi arloko politiken bidez denon helburuak bete nahi dira Bizkaiko Foru Aldundiko sailetatik programak babestuaz eta burutuaz.

### **gazte dimentsioari dagokionez:**

- Bizkaiko Foru Aldundiaren eta EGKaren 2012-2015 lankidetzaren hitzarmena, "Gaztedi Bizkaia" proiektuaren bidez Bizkaiko gazteen elkartze-mugimenduarekin elkarrizketa sustatzeko. Horrela, elkarte sarearen eta Aldundiaren arteko koordinazioa indartu egingo litzateke. Gainera, Bizkaian elkarteak egiteari eta boluntario izateari laguntzeko neurriak hartu nahi dira eta gaztedi arloko politika integralak ezarri, sustatu eta koordinatu nahi dira. Gazteen parte hartzea ere sustatu nahi da, gazteekin parte hartzeko eta elkarrizketarako bideak zabaldu nahi dira eta "Gaztedi Bizkaia" proiektua egiteko, burutzeko eta hedatzeko parte hartzea bermatu nahi da. Hitzarmen hau, guztira, 168.000€ da.

**babesteko egiturei dagokienez:**

- Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute, 2012-2015 ekitaldietan gazteei eta gaztedi arloan lana egiten duten profesionalei zuzendutako prestakuntza plan bat garatzeko.

Esan beharra dago Batzordean dauden erakundeek, Bizkaiko Foru Aldundiak eta udalek gaztedi arloan garatu beharreko jarduerak gazteak jasaten ari diren egoera zaila hartu dutela testuinguru legez eta Bizkaiko gizartea jasaten ari den krisi ekonomikoan oinarritzen direla hein handi batean.

Testuinguru honetan erakunde arteko ekintza koordinatu baten bidez erantzun nahi zaie lurralde historikoko gaztediaren arlotik planteatzen diren beharrei.